



SARRERA

Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A. enpresak arlo publikoan hartzen du parte eta herri administrazioen desberdina den botere adjudikatzailerik bat da, betiere Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 3.1 d) eta 3.3 b) artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 175. artikulua, erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuen adjudikazioari buruzkoak, sozietate publikoen kontratazioak bete beharreko printzipioak ezartzen ditu, bai kontratazioarako barne jarraibideak onesteko betebeharra ere; jarraibideok Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k onetsi, kontratugilearen profilean argitara eman eta egin beharreko kontratuetan parte hartzeko asmoa duten pertsona fisiko edo juridiko guztien esku jarri behar ditu.

Hori dela bide, jarraibide honek betetzen du gorago aipatutako legezko xedapenak ezarritakoa. Jarraibidearen xedea da Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k jarraitu beharreko prozedurak finkatzea, kontratista aukeratzeko eta erregulazio harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratuak adjudikatzeko, hau da, Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 13. artikulutik 17. artikulura arteko ezarpenetan mugatutakoez bestaldeko kontratuak esleitzeko.

Arestian aipatutako araua betez, jarraibideok kontratuak adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien esku jarriko dira; horretarako, Interneten emango dira argitara, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren web gunean.



I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Jarraibide hauen bidez, erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratuak adjudikatzeko prozedurak arautzen dira, kontratuok honako printzipioak bete dituztela bermatzeko: publizitatea, lehia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Era berean, jarraibideok bermatuko dute obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeke zuzenduko diren fondoak eraginkortasunez erabiliko direla; horretarako, asebate beharreko premiak aldeztatik definituko dira, lehia askea babestuko da eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aukeratuko da.

Halaber, jarraibide hauen xedea da erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratuen prestaketa eraenduko duten arau orokorrak erregulatzea.

2. artikulua.- Kontratazioa eraentzen duten printzipioak

1.- Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratazio prozedurek honako printzipio hauek errespetatuko dituzte:

- a) Publizitatea
- b) Lehia
- c) Gardentasuna
- d) Konfidentzialtasuna
- e) Berdintasuna
- f) Diskriminaziorik eza



2.- Aurreko idatz zatian zerrendatutako printzipioak beteko direla bermatzeko, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k izapidetutako kontratazio prozeduretan ondorengo arauak beteko dira betiere:

a) Izaera orokorrarekin, publizitate printzipioa betetzeko, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratuei buruzko informazioa kontratugilearen profilean emango da argitara; hori ez da oztopo izango egokitzat jotzen den kasuetan bestelako publizitate bideak erabiltzeko.

b) Kontratuen xedea diskriminaziorik egin gabe deskribatuko da, betiere fabrikazio edo jatorri zehatzik, produktu partikularrik, markarik, patenterik, eredurik, jatorririk edo ekoizpen jakinik aipatu gabe; nolahi ere den, era horretako aipamenak egin ahal izango dira, baldin eta egokiro justifikatzen badira eta horien ondoan "edo parekoa" aipua agertzen bada.

c) Ez da ezarriko beste estatu kide batzuetako lizitatzailerik potentzialen aurrean zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik dakarren baldintzarik.

d) Hautagaiei titulurik, egiaztagiririk edo bestelako dokumentaziorik aurkezteko eskatuz gero, beste estatu kide batzuetatik datozen agiriak onartu behar izango dira tituluak, egiaztagiriak eta gainerako diplomak elkarri aintzateste printzipioari jarraituz.

e) Interesa azaltzeko edo eskaintza bat aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira eta beste estatu kide batzuetako enpresei ebaluazio proposak egitea eta eskaintzak aurkeztea ahalbidetuko diete.

f) Bereziki kontratuak adjudikatzeko prozeduretan hornitzaile edo zuzkitzaile bat baino gehiago aurkezten denean, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k bermatu beharko du guztiek kontratuaren gaineko informazio bera dutela baldintza berberetan; orobat, hornitzailegaiok kontratazio prozeduran Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ri emandako informazioa konfidentziasunez erabili eta gordeko dela bermatuko da.

3.- Kontratuziorako barne jarraibideok bermatzen dute printzipio hauek guztiak beteko direla, eta Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratazio



organoei betiere ezartzen diete printzipio horiek betetzera zuzendutako jarduketa bide zehatza.

3. artikulua.- Aplikazio eremua

Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k egingo dituen kostubidezko kontratuak kontratatzekeko prozedurak jarraibide hauen menpe egongo dira; kontratuok honakoak izango dira:

- a) Obra kontratuak eta obren emakida kontratuak, baldin eta horien balioa, APKLren 76. artikulua ezarritakoaren arabera kalkulatuta, 4.845.000 eurotik beherakoa bada.
- b) APKLren II. eranskinen 1. kategoriatik 6.era bitartean sartzen diren zerbitzu kontratuak, baldin eta horien balioa, APKLren 76. artikulua ezarritakoaren arabera kalkulatuta, 193.000 eurotik beherakoa bada, eta APKLren II. eranskinen 17. kategoriatik 27.era bitartean sartzen diren zerbitzu kontratuak.
- c) Hornidura kontratuak, baldin eta horien balioa, APKLren 76. artikulua ezarritakoaren arabera kalkulatuta, 193.000 eurotik beherakoa bada.
- d) APKLren 13. artikuluen 2. idatz zatian ezartzen diren kontratuak, horien balioa edozein izanagatik ere.



4. artikulua.- Bermeak

Behin-behineko bermerako eskakizunari buruzko 30/2007 Legeak ezarritako ahalmena dela bide, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k oro har ez du halako bermerik eskatuko, baldin eta kontratu jakin batzuetan hori eskatzea aholkatzen duten zirkunstantziak azaltzen ez badira.

5. artikulua.- Kontratistaren ahalmena

Baldintza agiriek Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.rekin kontratatzeke debekuak ezarriko dituzte. Nolanahi ere den, ezin izango dute Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.rekin kontraturik egin 30/2007 Legeak ezarritako debeku zirkunstantzietariko edozein betetzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.

Baldintza agirietan ahalmen eta kaudimen baldintzak zehaztuko dira, bai eta horiek justifikatzeko modua ere. Kontratazioaren kopurua dela-eta baldintza agiririk egin behar ez bada, eskaintzen eskaeran zehaztu ahal izango dira beharrezkotzat jotzen diren baldintzak, betiere kontratuaren xedearen arabera.

Jarduteko ahalmena, ekonomi nahiz finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa egiaztatuko dira Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k zehaztutako bitartekoak erabiliz, betiere 30/2007 Legeak ezarritakoen artetik.

6. artikulua.- Kontratazio organoak

Kontratatzeke ahalmena Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren estatutuek eta aplikagarriak zaizkion zuzenbide pribatuko gainerako arauak ezarritakoaren arabera eraentzen da.



Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratazio organoak dira **administrazio kontseilua, lehendakaritza eta gerentzia**, bai eta administrazio kontseiluak kontratazio arloko eskumenak izateko gaitutako **gainerako kargu guztiak** ere, betiere ordezkaritza erabakien markoan eta zenbatekoetan eta beharrezko botereak eman eta gero.

7. artikulua.- Kontratazio mahaia

Kontratazio organoak kontratazio mahaia bat eratu ahal izango du lizitatuileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko eta organo horretara bertaratzeko kontratuaren adjudikazioan. Mahaia lehendakari batek, bokalek eta idazkari batek osatuko dute. Osaera kontratazio organoak finkatu du kasu bakoitzean baldintza agirietan.

Mahaia teknikiak bileretara bertaratzeko eskatu ahal izango du, aholkularitza espezializatua eman dezaten.

Kontratazio mahaiaren bilera guztien akta egingo du idazkariak; agiri horretan jarduketa guztiak jaso beharko dira zehatz. Akta gutxien-gutxien idazkariak izenpetu behar izango du eta lehendakariak ontzat eman.

Kontratazio mahaia adjudikazio proposamenak aurkeztuko ditu eta proposamenotan men egingo zaio baldintza agirietan zehaztutako irizpideen haztapenari. Mahaia kontratuak esleitzeko egindako proposamena ez da loteslea izango, baina kontratazio organoak proposamena kontuan hartzen ez badu, bere erabakia arrazoitu behar izango du.

Kontratazio mahaia, bere proposamena egin baino lehenago, egokitzen jotzen dituen eta kontratuaren xedearekin zerikusia duten zenbani txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

8. artikulua.- Izaera orokorreko oharrak



- Epeak.

Dokumentu honetan aipatzen diren epeei dagokienez, kontrakoa adierazten ez bada, epeetako egunak baliodunak izango dira.

- BEZ.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaz denaz bezainbatean, dokumentuan aipatzen diren zenbatekoetan ez dela BEZ sartu ulertu behar izango da; edozein kasutan ere, partida independente gisa aipatu behar izango da Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k jasan behar izango duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kopurua.

II. TITULUA. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

I. KAPITULUA: KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN PRESTAKETA.

9. artikulua. Kontratuen premia eta egokitasuna

Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k bere erakunde helburuak betetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren kontratuak egingo ditu. Horretarako, proiektutako kontratuaren bitartez estali nahi diren premien izaera eta edukia zehatz-mehatz ezarriko dira, bai eta horiek asebetetzeko xede eta edukiaren egokitasuna ere; hori guztia kontratuak prestatzeko dokumentazioan agertuko da, adjudikaziora bideratutako prozedurari ekin baino lehenago.

10. artikulua.- Dokumentazioa

Kontratazio espedienteen aurretik, honako dokumentazioa beharko da:



- Gastu proposamena; interesatutako sailak egingo du eta bertan kontratuaren premia eta egokitasuna zehaztuko da, bai eta asebate beharreko premiak eta eskaintzarako betekizun eta baldintzak ere.
- Gastuaren onespena; lehendakaritzak onetsiko du izaera txikikoak ez diren kontratuen adjudikazio prozedura hasteko.
- Administrazio Klausula Berezien Agiria; dokumentu horretan honakoak agertuko dira nahitaez:
 - Aplikagarria den legeriaren aipamena.
 - Kontratuaren xedearen definizioa.
 - Nolabaiteko prezioa edo prezioa zehazteko formula.
 - Prezioaren berrikuspena.
 - Burutzapen epea eta haren luzapenak.
 - Kontratuan eman beharreko bermeak.
 - Kontratu eredua.
 - Lizitatzaila egiaztatze eta aurkezteko baldintzak.
 - Adjudikazio prozedura.
 - Publizitatea.
 - Lizitazioa.
 - Kontratazio mahaia.
 - Alderdi ekonomiko eta teknikoak, hala badagokio, negoziaziogaiak izan daitezkeenak.
 - Kontratazio organoa.
 - Kontratuaren adjudikazioa, formalizazioa, betearazpena eta iraungipena.
 - Araubide juridikoa, jurisdikzioa eta baliabideak.

Aurrekoetz gain, bestelako baldintza eta betekizunak txertatu ahal izango dira, betiere jarraibide hauen 2. artikuluan zerrendatutako printzipioak betetzen direla bermatzen denean.



II. KAPITULUA: PROZEDURA MOTAK

11. artikulua.- Prozedura motak.

Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak kudeatu ahal izango dira Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak ezarritako prozeduren bidez:

- **Prozedura orokorra:**

Ezaugarriak

Prozedura orokorrean interesa duten enpresek edo enpresaburuek proposamen bat aurkeztu ahal izango dute.

Aplikazio eremua

Prozedura hau Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k egiten dituen eta erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuei aplikatu ahal izango zaie, baldin eta zerbitzu eta horniduren kasuan kontratuok 100.000 eurotik 193.000 baino gutxiagoko kopurura artekoak badira eta obren kasuan 1.000.000 eurotik 4.845.000 baino gutxiagoko kopurura artekoak.



- **Prozedura sinplifikatua:**

Ezaugarriak

Prozedura sinplifikatuan adjudikazioa kontratazio organoak modu arrazoituan aukeratutako lizitatzaillearen esku geratuko da, behin gutxien-gutxien hiru hautagairekin beharrezko kontsultak egin eta kontratuaren baldintzak negoziatu eta gero.

Espedientean agertuko dira egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak.

Aplikazioa eremua

Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k egingo dituen eta erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak, baldin eta horien zenbatekoa 100.000 eurotik beherakoa bada zerbitzu eta horniduren kasuan, eta 1.000.000 eurotik beherakoa obren kasuan.

- **Prozedura laburtua:**

Ezaugarriak

Prozedura honetan kontratua adjudikatu ahal izango zaio prestazioa aurrera eramateko beharrezko jarduketa eta lanbide gaitasuna duen edozein enpresa edo enpresabururi.

Prozedura honen bitartez esleitutako kontratuetan, espedientearen tramitazioan bakar-bakarrik eskatuko da **gastuaren onespina** eta horren barruan faktura edo fakturak sartzea. Obra kontratuetan lanen aurrekontua



erantsi behar izango da, baldin eta arau zehatzek eskatzen dutenean beharrezko proiektua egin behar ez bada.

Kontratu txikiek ezin izango dute urtebetetik gorako iraupenik, ezin izango dira luzatu eta ezin izango dira prezioak berrikusi.

Aplikazio eremua

Kontratatu txikiak adjudikatzeko, prozedura laburtua erabili ahal izango da.

Kontratu txikitzat hartzen dira 50.000 eurokoak edo kopuru horretatik beherakoak obren kasuan, eta 18.000 eurokoak edo handik beherakoak bestelako kontratuak direnean.

12. artikulua.- Publizitatea

Kontratu baten adjudikazio prozedura jendaurrean igarriko da Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratugilearen profilean iragarkia jarriz Urduliz Urbanismo Sozietatearen web gunean edo Urdulizko Udaleko web gunean; hori ez da oztopo izango kontratazio organoak egokitzen jo ditzakeen bestelako publizitate bideak erabiltzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa gorabehera, ez da beharrezkoa izango lizitazio iragarkia kontratugilearen profilean argitara ematea prozedura sinplifikatu edo laburtua aplikatzen denean.



III. TITULUA. ERREGULAZIO HARMONIZATUARI LOTUTA EZ DAUDEN KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA.

13. artikulua.- Aurkezpen epea

Prozedura irekian eta prozedura sinplifikatuan, kontratazio organoak eskaintzak hartzeko epeak finkatuko ditu, kontratuen zailtasunari men eginda, horiek prestatzeko beharrezkoa izan daitekeen denbora tartea kontuan hartuz. Hala eta guztiz ere, eskaintza hartzeko gutxieneko epea inoiz ez da 10 egun naturaletik beherakoa izango, betiere iragarkia kontratugilearen profilean argitara ematen denetik (prozedura orokorra) edo gonbidapenaren jakinarazpenetik (prozedura sinplifikatua) zenbatzen hasita.

14. artikulua.- Eskaintzen aurkezpena.

Kontratazio prozedura ireki eta sinplifikatuetan, enpresek parte hartzeko eta proposamenak egiteko bideratutako eskaerei erantsi beharko zaie Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 130. artikuluan eta kontratazioaren baldintza agirian ezarritako dokumentazioa.

Lizitzaile bakoitzak, banaka edo aldi baterako elkartuta, ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izango du proposamenik sinatu aldi baterako elkarte gisa, proposamena banaka aurkeztu badu. Printzipio hauek betetzen ez dira, lizitzaileak aurkeztutako proposamenak automatikoki ezetsiko dira.

15. artikulua.- Adjudikazio prozedura.

Prozedura orokor eta sinplifikatuetan, kontratuen adjudikazio bi fasetan egingo da:



15.1- Eskaintzen ebaluazioa.

Fase honetan baldintza agiriak ezartzen duen lizitatzaillearen dokumentazio orokorra jasotzen duen gutunazala irekiko da. Kontratazio mahaiak kalifikatuko ditu epearen barruan eta eraz aurkeztutako agiriak.

Mahaiak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela, 5 egunetik gorakoa izango ez den epe bat eman ahal izango du, lizitatzailleak horiek zuzentzeko; akatsa zuzendu ezik, mahaiak behin betiko baztertu ahal izango duela ohartaraziko zaio.

Ezin izango dira zuzendu gutunazalean sartu beharreko dokumentazioari, sinatzailearen nortasunaren egiaztapenari, behin-behineko bermearen osaerari eta kontratistaren sailkapenari dagozkien akatsak, ez eta, hala denean, ekonomi eta finantza kaudimenari eta gaitasun teknikoari dagozkienak ere.

Kalifikazioa ikusita, kontratazio mahaiak lizitatzailleak onartzeko izapidearen gainean ebatziko du.

Horren ondoren, eskaintza ekonomikoak irekiko dira eta proposamenen azken ebaluazioa egingo da, betiere baldintza agirian alderdi tekniko eta ekonomikoetarako ezarritako irizpideak aplikatuz.

Eskuratutako puntuazioaren arabera, hiru lizitatzaille zehaztuko dira; horiekin hurrengo faseari ekingo zaio eskaintzak erkatzeko eta zehazteko izapide baten bitartez.

15.2- Negoziazio fasea.



Negoziatioak ziurgabetasunak edo bestelakotzeak ezabatzen ahaleginduko dira kontratuaren betearazpenean eta betiere aurreko elementuei dagokienez. Ez da inoiz onartuko eskaintzaren baldintzen aldaketa esanguratsurik, eta aldaketa hori dagoela ulertuko da aurrekordatutako prezioa hasierako prezioaren %10 baino gehiago hazten bada. Irizpide bera aplikatuko da proposatutako epeen zabalkuntzei dagokienez.

Negoziatioan, kontratazio organoak zainduko du lizitatzailer guztiek tratu bera izango dutela. Bereziki ez dute modu diskriminatzailean emango lizitatzailer jakin batzuei gainerakoen aldean abantaila eman diezaiekeen informaziorik.

Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k ezohiko edo neurritz kanpoko balioak antzemango ditu, lizitaziorako baldintzetan ezarritakoaren arabera, eta eskaintza bakoitza ebaluatuko du baldintza agirien edo gainerako eskaintzen aldean, ebaluazioan prezioari eragiten dioten faktore guztiak txertatuz. Eskaintza bat ezohiko edo neurritz kanpoko balioak dituela-eta baztertzeko, lehenengo eta behin enpresa lizitatzailerari beharrezko informazioa eskatu behar izango zaio balio horiek justifikatzea ahalbidetzeko, informazio hori eskaintzan bertan agertzen ez bada. Justifikazioa nahikotzat jotzen ez bada, lizitaziotik at geratuko da.

16. artikulua.- Adjudikazio proposamena.

Behar bezala baloratutako eta kontratuaren betearazpen egokirako interesik handienetik txikienera sailkatutako aurrekordioen emaitzarekin, kontratazio mahaiak adjudikazio proposamen bat egingo du eta kontratazio organoari helaraziko dio.

17. artikulua.- Kontratuen adjudikazioa.

Kontratazio organoak kontratuaren adjudikazioaren gainean ebatziko du.



Adjudikazioa ahalik eta denbora tarterik laburrenean egin beharko da proposamen ekonomikoak irekitzen direnetik. Nolanahi ere den, jarraibide hauen menpe jarritako kontratuak esleitzeko gehieneko epea ezin izango da 4 hilabetetik gorakoa izan proposamenak zabaltzen direnetik, betiere bestelako eperik ezartzen ez bada administrazio klausula berezien agirian. Adjudikazioa gauzatzen ez bada zehaztutako epeen barruan, lizitatzailleek beren proposamena kentzeko eskubidea izango dute.

Kontratazio organoak ezin izango du lizitazioa eraendu zuen baldintza agiriaren kontrako baldintzarik ezarri.

Lizitazioa ez-aurreztatut eman ahal izango da, baldin eta baldintza agirian zehaztutako irizpideen arabera onargarria den eskaintzarik edo proposamenik ez badago. Hala eta guztiz ere, prozedura sinplifikatuan, zirkunstantzia horrek berekin ekarriko du kontratazio organoak prozesuari berrekitea, hautatzaile berriei eskaintzen eskaerak eginez.

III. TITULUA: KONTRATUAK GAUZATZEA

17. artikulua.- Jakinarazpenak.

Kontratuen adjudikazioa argitara emango da Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontratugilearen profilean.

Gainera, lizitazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean edo Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara eman bada, aldizkari horietan argitaratu behar izango da adjudikazioaren emaitza.

Interesdunek eskatzen badute, euren hautagaitza edo proposamena



baztertua izateko arrazoiei buruzko argibideak emango zaizkie, bai eta adjudikazio proposamena aukeratzeko erabakigarriak izan ziren ezaugarriak buruzkoak ere.

Kontratazio organoak ez ditu adjudikazioaren gaineko datu zehatz batzuk jakinaraziko, uste badu informazio hori zabaltzeak arau baten aplikazioa oztoka dezakeela, interes publikoaren aurka jo dezakeela edo enpresa publiko edo pribatuaren legezko merkataritza interesari kalte egin diezaiekeela, edo sekretu edo erreserbatutzat hartutako kontratuak badira edo horien betearazpena segurtasun neurri berezietan lotuta badago.

19. artikulua.- Kontratuak gauzatzea.

Kontratuak kontratazio organoaren adjudikazioaren bitartez perfektionatzen direla ulertuko da.

Oro har eta prozedura laburraren bitartez tramitatutako kontratuetan izan ezik, alde kontratugileek kontratuak gauzatzeko betebeharrak dute dokumentu pribatuak; hala ere, aldeetarik edozeinek eskatuta, kontratu hori dokumentu publiko bihurtu ahal izango da Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k izendatutako notarioaren aurrean. Hala badagokio, eskritura egiteko gastuak, kontratistaren kontura izango da.

Klausuletan bestelakorik ezartzen ez bada, kontratuak Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.aren sozietate egoitzaren tokian egin direla ulertu behar izango da.

Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k egingo dituen kontratuak gehienez ere 15 eguneko epean gauzatuko dira, betiere behin betiko adjudikazioa jakinarazten den biharamunetik zenbatzen hasita.



Lehendabiziko 10 egunen barruan, adjudikaziodunak behin betiko bermea ez ezik Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren kontu korrontean espedientearen tramitazio prozesuan izandako eta baldintza agirian ezarritako gastuak direla-eta (iragarkiak, zergak eta abar) kontratistak ordaindu beharreko diru sarreren egiaztagiria ere aurkeztu behar izango du, bai eta prozedura eraentzen duten baldintza agiriek ezarritako gainerako betekizunak ere.

Gorago aipatutako beharrezko baldintzak betetzen ez direla eta, adjudikaziodunarekin kontratua gauzatzea bidezkoa ez denean, beste deialdi bati ekin baino lehenago, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k hurrengo lizitatzailari adjudikatu ahal izango dio kontratua, eskaintzak sailkatu diren hurrenkera kontuan hartuta, baldin eta hori posible bada eta adjudikazioduna horrekin bat badator.

Prozedura horri jarraitu ahal izango zaio erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuen kasuan, betiere ebatzi eta hasitako kontratu baten betearazpenari jarraipena eman behar zaionean.

IV. TITULUA. KONTRATUAREN IRAUNGIPENA

Kontratuak iraungiko dira bete direlako edo suntsitu direlako.

19. artikulua.- Kontratua betetzea

Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da prestazioaren osotasuna aurrera eraman duenean, kontratuaren baldintzen arabera eta Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren premiak betez. Nolanahi ere den, hori egiaztatzeko, harrera edo adostasun ekitaldi formal eta positibo bat beharko da, betiere kontratuaren xedea bete edo amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan edo administrazio klausula berezien agiriak ezarritako epearen barruan.



Kontratuetan berme epe bat finkatu da harrera edo adostasun datatik aurrera zenbatu beharrekoa; hori objekziorik gabe igarota, kontratistaren erantzukizuna iraungiko da.

21. artikulua.- Abalak itzultzea.

Bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko, kontratua egokiro beterik, berme epearen mugaeguna iritsi arte edo horren suntsiarazpena onetsi arte kontratistaren errurik gabe.

Kontratuaren likidazioa onetsi eta berme epea igaro eta gero, erantzukizunik ez badago, osatutako bermea itzuliko da edo abala ezeztatuko. Itzulketa erabakia hartu eta interesdunari jakinarazi behar izango zaio bi hilabeteko epean, betiere berme epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratua zatiz besterik hartzen ez bada, kontratistak bakarrik eskatu ahal izango du bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezeztatzeko, baldin eta administrazio klausula berezien agirian beren beregi baimentzen bada.

Kontratuaren lagapenik egonez gero, lagatzaileak utzitako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko, harik eta lagapen hartzailearena eraz osatzen den arte.

22. artikulua.- Suntsiarazpena

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira APKLren 206. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen direnak. Kontratazio organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, ofizioz edo kontratistak eskatuta, hala badagokio, APKLk garatzen duen prozedurari jarraituz.

Kontratua suntsiarazteko ondorioei dagokienez, APKLren 208. artikuluetan eta gainerakoetan ezarritakoa hartu behar da aintzakotzat.



IV. TITULUA. AZKEN ARAUAK

23. artikulua.- Zuzenbide ordeztalea.

Jarraibide hauetan beren beregi erregulatuta ez dauden kontratuak prestatzeko eta adjudikatzeko prozeduretan, informaziorako printzipio orokor gisa kontuan hartu behar izango da Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak ezartzen duena, baldin eta egin beharreko eragiketaren izaera edo Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A. ren araubide juridikoa horrekin bat ez badator. Aitzitik, jarraibide hauetan ezartzen ez denari dagokionez, betebeharren eta kontratuen interpretazioa, izaera, betetzea eta eraginkortasuna zuzenbide pribatuaren arauen arabera eraenduko da. Halaber, zuzenbide arrunta aplikatuko da bidezkoa denean.

24. artikulua.- Arbitrajea eta jurisdikzio eskuduna

1.- Adiskidetasunezko akordiorik egon ezean, kontratuen interpretazioa, betearazpena, betetzea eta iraungipena direla-eta sor litezkeen auziak Bizkaiko Merkataritza eta Industri Ganberako Arbitraje eta Adiskidetzaren Zerbitzuaren menpean jarriko dira; zerbitzu horrek abenduaren 23ko 60/2003 Legeak ezarritakoaren arabera jardungo du.

2.- Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k egin beharreko kontratuen prestaketa nahiz adjudikazioari dagozkion auzigaiak ebazteko jurisdikzio ordena eskuduna administrazioarekiko auzia izango da, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuen kasuan, eta zibila, erregulazio harmonizatuari lotuta ez daudenen kasuan.

3.- Jurisdikzio ordena zibila eskuduna izango da, betiere, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.k egin beharreko kontratuen ondorioen, betearazpenaren eta iraungipenaren inguruan aldean artean sor daitezkeen



hizka-mizkak ebazteko, kontratu horiek harmonizatuak izan edo ez; gauzak horrela, bi aldeak Bizkaiko Epaitegi eta Auzitegi forupean jarriko dira eta egokitu ahal zaizkien bestelako foruei berariaz egingo diete uko.

25. artikulua.- Indarrean sartzea

Jarraibide hauek indarrean sartuko dira Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren administrazio kontseiluak onetsi eta gero, betiere jarraibideok onesten direnetik hasten diren kontratazio prozedurei dagokienez.

26. artikulua.- Hurrengo aldarazpenak

Jarraibide hauei aldarazpenak, batuketak edota argitasunak egin ahal izango zaizkie, Urduliz Urbanismo Sozietatea S.A.ren administrazio kontseiluak hala erabakita.